

**PRAILE, MONJA ETA LAIKO  
ELEIZARI EUSTEKO NAHIKO**

*puntura*

**1**

- P.** Praile eta laikoak  
alkartu beharra,  
**L.** Gauzak bideratzeko  
hau da lege zaharra.  
**P.** Alkartzean ei dago  
grazi ta indarra  
**L.** Hau benetan hartzeko  
ez da ordu txarra

**2**

- P.** Batzuk birjinak eta  
besteak ezkondu  
**L.** San Paulok berak ere  
hau ezetz konpondu  
**P.** Hau ondo konpontzeko  
behar da gizondu  
**L.** Orduan, sekretua  
da: guztiok ondu

**3**

- P.** Nahi dauanak jo begi  
etxeko atia  
**L.** Probatzeko badogu  
guk borondatia  
**P.** Ez jatzue faltako  
lapiko betia  
**L.** Eta gure kontura  
lana ta nekia?

**4**

- P.** Alkarrekin otoitz ta  
alkarrekin lana  
**L.** Aiba, ez dago txarto  
praileon esana  
**P.** Kontuak ondo hartu,  
ai ene laztana  
**L.** Hemen eta zeruan  
dana erdibana

**5**

- P.** Orain hasi doguna  
da bide barria  
**L.** Espiritu Santuak  
danoi ezarria  
**P.** Gurutzeko Paulo da  
gure oinarria  
**L.** Guretzat itxaropen  
Ikaragarria

**6**

- P.** Praile, monja ta laiko  
danok pasionista  
**L.** Zergaitik ez, bardina  
badogu Karisma?  
**P.** Holan laburtu barik  
luzatzen da lista  
**L.** Zoragarria jaku  
holako albista.

**7**

- P.** Gogoan ondo hartu  
praileen eskolak  
**L.** Gerizpe ona dauka  
hemengo arbolak.  
**P.** Txoririk ez badago  
alperrik kaiolak  
**L.** Ez daukaguz ahaztuta  
Ferminen etxolak.

**8**

- P.** Bada nahiko indarrrik  
bagara alkartzen  
**L.** Bizibarritzen dana  
ez da inoiz zahartzen.  
**P.** Kostatzen jakuk, lagun,  
argira itzartzen  
**L.** Hasi leitekek norbait  
idiak buztartzen.

**9**

- P.** Batzuk botaka eta  
besteak besaka  
**L.** Holan alperrik gabiltz  
tira eta saka  
**P.** Hobe lehenen zuzendu  
bakotxa banaka  
**L.** Ezin leiteke hasi  
bada ezpadaka.

**10**

- P.** Danok anai-arreba,  
danok senitarte  
**L.** Nekaldiko Karisman  
danok dogu parte  
**P.** Hau da zuen etxea  
hau zuen alkarte  
**L.** Eskerrik asko, agur  
ta ikusi arte.